

Hezkuntza Sailak Euskaldunon aurkako erasoak egin dituela salatu nahi ditu LABek

“Euskalduna izatea euskaldun ez izatearen atzetik jartzen dute behin eta berriro”

Ikasturtea hasi genuenetik, LABek behin eta berriro salatu ditu euskaldunon aurkako erasoak. Lehen adibidea Hezkuntza Sailak abenduaren 17an lekualdatze-lehiaketari begira ireki zuen prozesuan izan zen. Bertan, 1. hizkuntz eskakizuneko (B2 mailakoak) lanpostuak ez eskaintzea ahalbidetzen zuen ebazpena argitaratu zuen.

Zentzu horretan, Lanpostu Zerrendan dauden lanpostu guztiak ez eskaintzeko aukeraz gain, 2.hizkuntza eskakizuna (C1 maila) duten karrerako funtzionario diren langileekiko diskriminatzailea den neurri bati bide eman zion Sailak. Izan ere, lanpostu horiek eskolak euskaraz emateko hizkuntza eskakizuna ez duten langileei esleitu ahal izango zaizkie lehentasunez.

Honen aurretik, ikasturte hasierako lanpostuen adjudikazio-prozesua arautzen duen aginduan, Sailak ezarri zuen 2. HEko hizkuntza-profila duten langileek soilik 2. HEko lanpostuak eskatu eta eskuratu ditzaketela. Arauak salbuespen gisa jaso zuen, 2. HE egiaztatuta duten langileek soilik 1.HEko lanpostuak eskuratu zitzaizketela, baldin eta horrek ez bazuen eragozten 1.HE bakarrik duten langileek lanpostu horiek eskuratzeko, nahiz eta azken honek puntuazioa gutxiago eduki. Antzintasuna eta langile publikoon eskubideak guztiz urratuz.

LABen laguntzaren bitartez egoera horretan dauden langile batzuk bide juridikoa abiatu dute eta urraketa egon dela aitortu zaie. Beraz, LABetik eskatzen dugu era orokortuan aginduan ezarri den klausula hori Hezkuntza Sailak atzera botatzeko eta langile guztiak berdin tratatzeko, euskalduntzean atzerapausorik ez ematearekin batera.

LABetik salatzen dugu bigarren hizkuntza eskakizuna duten langileekiko egoera diskriminatzaileak iraunarazten dituela Sailak. Batetik, ikasketak euskaraz eta D eremuan eskaini arren, gaztelaniaz irakastera bultzatzen baitituzte irakasleak; eta bestetik, lekualdatze lehiaketan, lanpostu guztiak langile guztiei gardentasunez eta aukera berdintasunean eskaini beharrean 1. hizkuntz eskakizuneko lanpostuak ez eskaintzea ahalbidetzen zuen ebazpena argitaratu zuen gainerako langileekiko diskriminatzailea den neurri bati bide emanez.

LABek dituen datuen arabera, hizkuntza eskakizun eta derrigortasun datarik gabeko lanpostuak hurrengoak dira: Lanbide Heziketan 1. hizkuntza eskakizunarekin 1.305 lanpostu (2. hizkuntza eskakizuna dutenak 2.696 dira); eta Bigarren Hezkuntza eta irakaskuntza integratuetan berriz, 1. hizkuntza eskakizunarekin 222 lanpostu dago (2. eskakizuna dutenak, berriz, 6.804 dira).

Lanbide Heziketako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lanpostu askok ez daukate hizkuntza eskakizun ezta derrigortasun datarik. Honetaz gain, zerbitzuetako langileak euskalduntzeko plan eraginkorra behar da eta ikasleek euskaraz ikasteko eskubidea bermatua izan dezaten euskalduntzen ez duten hizkuntza ereduak gainditu behar dira.

Urraketak ez dira soilik langileetara mugatzen, euskalduntzen ez duten ereduaren eskaintza medio, ikasle askori euskaraz ikasteko eskubidea eta euskal kultura ezagutzeko aukera ukatzen zaie. Euskalduntzen ez duten ereduaren bitartez eskaintzen diren ziklo guztietatik %60a bakarrik da euskaraz Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Egoera hau larritu egiten da Oinarrizko Lanbide Heziketan non D ereduaren anekdotikoa den (matrikulen %18,5).

Beraz, lanpostu guztiek hizkuntz eskakizuna izatea eta derrigorrezko data jarrita izatea exijitzeaz gain, sinatu ditugun Lan Hitzarmenetan jasotako euskara planak garatzea ezinbestekoa dela aldarrikatzen du LABek langile publiko guztiak euskalduntzeko, baita kolektibo guztietako langileei ikastaroetan parte hartzeko aukera eskaintzea ere, euskara maila mantentzeko zein hau hobetzeko.